

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **tokiko gobernu batzarrak, 2023ko urriaren 19an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Landa-bideak hormigoitzeko diru-laguntzaren ukoa onartzea eta diru-laguntzen 2023ko deialdiaren ebazpen onartzea.

Alkate-udalburuaren 2023ko urriaren 16ko proposamenak dio:

Gaia: Landa-bideak hormigoitzeko diru-laguntzaren ukoa onartzea eta diru-laguntzen 2023ko deialdiaren ebazpen onartzea.

Aitor Gerenabarrena Osa (nekazaritza-auzoak eta ingurumen teknikaria eta batzordeko idazkaria) 2023ko urriaren 10ean egindako landa garapen batzordearen sinatutako aktak honela dio:

“M^a Cruz Herranz andrearen idatzia: landa-bideak hormigoitzeko diru-laguntzari uko egitea (1094/esp) (4642/sar)

2023ko urriaren 4ko sarrera-data duen idatziaren bitartez, M^a Cruz Herranz andreak landabideak hormigoitzeko diru-laguntzari uko egiten diola adierazi du. Laburbilduta, idatzian emandako arrazoiak honakoak dira: bide publikoa izanda ez dela justua bertako bizilagunek bidearen kostean parte hartu behar izana.

Oñatiko udalerriko landa-bideak hormigonatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartu zituen Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 30ean eta 2023ko apirilaren 19an eman ziren argitara Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2023ko deialdiarekin batera (74 zk.)

2023ko ekainaren 9an Udal Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran, besteak beste, delako dirulaguntza deialdiaren ebazpena onartu zen. Horren arabera, M^a Cruz Herranz andreak egindako eskaera 6.962,22 €-rekin diruz laguntzen da, honako baldintzapean:

- 1. artikulua arabera diru-laguntzaren %50a alde aurretik ordaintzea.*
- 2. Gainontzeko %50a kobratzeko zera gogoraraztea: eskaera berri bat egin beharko dela behin obra gauzatzen denean eta eskaerarekin batera ordainagiriak aurkeztu beharko direla.*
- 3. artikulua arabera, abenduaren 31a arteko epea ematea proiektua gauzatzeko.*

Oinarri arautzaileen 15. artikulua xedatutakoaren arabera, onuradunak oinarrietan eta aplikatu daitezkeen gainerako arauetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez baditu, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta dirulaguntza itzuli beharko du, dagozkion berandutzainteresekin, Oñatiko Udalaren Diru-laguntzak kudeatzeko Ordenantza Orokorraren 21. Artikulua arabera.

Onuradunak ez du jaso oraindik dirulaguntzaren ordainketa, hortaz, ez du dirulaguntzarik itzuli beharrik.

Bestalde, oinarri arautzaileen 14. artikulua ebazpena aldatzea aukera jasotzen du: dirulaguntza ematen duen ebazpena aldatu egin daiteke, baldin eta ematerakoan eta ordaintzerakoan kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira eta, nolana ere, diruz lagun daitezkeen zenbatekoaren muga maximoa gainditzen ez bada, beste dirulaguntza batzuk ere lortu izanaren ondorioz. Horrenbestez, eskumeneko organoak dagozkion aldaketa-ebazpena emango du, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokituz.

Oinarri arautzaileen 9.1. artikulua “diru-laguntza emateko prozedura” xedatutakoaren arabera, laguntzak ebatzea Gobernu Batzordeari dagokio.

Gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak aho batez ondorengo erabaki proposamena onar dezala eskatu dio Udal Tokiko Gobernu Batzarrari:

Lehen: M^a Cruz Herranz andreak landa-bideak hormigoitzeko diru-laguntzari uko egiteko eskaera onartzea.

Bigarrena: Dirulaguntzarik aurreratu ez denez, itzultzeko eskaerarik ez egitea

Hirugarrena: Kontuan izanda, udal aurrekontuko diru-atalean 6.962,22 € libre geratu direla, 2023ko ekainaren 9an Udal Tokiko Gobernu Batzarrak egindako ebazpena aldatu etalaguntza proposamen berria era honetan egitea:

sarrera zk	bide luzera ml	Aurrekontua guztira BG	Baserriaren nekazaritzajarduera 10 ptu baratzea 5 ptu frutarbolak 5 ptu	Baserriaren eta hirigunearen arteko distantzia < 1 km (5 ptu) 1-2 km (10 ptu) 2-3 km (15 ptu) >3 km (20 ptu)	GUZ.	Aurrekontua moduloak BG (130 €/m3) (15 €/Tn)	laguntza proposamena
3026	70,6	9.106,00 €	20	10	30	4.130,10 €	4.130,10 €
3059	426,0	43.800,00 €	10	20	30	24.921,00 €	24.921,00 €

29.051,10 € 29.051,10 €”

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea dirulaguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, dirulaguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

36-43 artikuluetan Diru-laguntzen itzultzea arautzen dute. 38. Artikuluak honakoa dio:

“1. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta, kobratzeko, Aurrekontuen Lege Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

2. Diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesa diruaren legezko interesa izango da, ehuneko 25 gehituta, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak beste interes bat ezarri ezean.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Azaldutakoagatik, batzordearen proposamena ikusita, tokiko gobernu batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- M^a Cruz Herranz andreak landa-bideak hormigoitzeko diru-laguntzari uko egiteko eskaera onartzea.

Bigarrena.- Dirulaguntzarik aurreratu ez denez, itzultzeko eskaerarik ez egitea

Hirugarrena.- Kontuan izanda, udal aurrekontuko diru-atalean 6.962,22 € libre geratu direla, 2023ko ekainaren 9an Udal Tokiko Gobernu Batzarrak egindako ebazpena aldatu eta laguntza proposamen berria era honetan egitea:

sarrera zk	bide luzera ml	Aurrekontua guztira BG	Baserriaren nekazaritzajarduera 10 ptu baratzea 5 ptu frutarbolak 5 ptu	Baserriaren eta hirigunearen arteko distantzia < 1 km (5 ptu) 1-2 km (10 ptu) 2-3 km (15 ptu) >3 km (20 ptu)	GUZ.	Aurrekontua moduloak BG (130 €/m3) (15 €/Tn)	laguntza proposamena
3026	70,6	9.106,00 €	20	10	30	4.130,10 €	4.130,10 €
3059	426,0	43.800,00 €	10	20	30	24.921,00 €	24.921,00 €

29.051,10 € 29.051,10 €

29.051,10 € 29.051,10 €

O Ñ A T I K O U D A L A

Laugarrena.- Onarpenarekin batera onuradun zein norbanako bakoitzari dirulaguntzaren %50a ordaintzea.

Bosgarrena.- Ebazpen hau laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatu du. Jakinarazpena egizat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpeta argitaratu eta biharamunetik hasita. Interesdunek, Oñatiko Udaleko webgunean (<https://www.xn-oti-gga.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Seigarrena.- Dirulaguntza hauen onuradunak Datu Base nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Zazpigarrena.- Erabakia Kontuhartzaile eta diruzain sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagozkion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua araberak.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatearen O.I.

IDAZKARIA

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan

